


# 15. KULTURA, KOMUNIKAZIO ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

UPV/EHU Uda Ikastaroak 2024

BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU



Migrazioak, identitatea, elkarbizitza  
eta antiarrazakeria



## **KCD GGKE**

IFK: G95550943

Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

CP 48902 - Barakaldo - Bizkaia

## **Kontaktua**

Telefonoa: 94 602 46 68

E-mail: [info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org)

[www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org)

**Edizioa:** KCD ONGD

**Diseinua:** Binari Comunicación

**Testua:** Andrea Ruiz Balzola

# AURKIBIDEA



EGITARAU 2024 .....	4
AURKEZPENA .....	7
INAUGURAZIO-HITZALDIA .....	8
SOLASALDIA: "KAZETARITZA KRITIKOA ETA ANTIRRAZISTA" .....	11
SOLASALDIA: "INDARKERIAK ELKARGURUTZATZEN DIRENEAN" .....	15
SOLASALDIA: "KULTURARTEKO ETA ARRAZAKERIAREN AURKAKO HEZKUNTZA" .....	20
SOLASALDIA: "KULTURA-ANIZTASUNAREN ETA ARTEAREN BALIOA ERALDAKETARAKO TRESNA GISA" .....	24
AURKEZPENA: "MIGRAZIO-DINAMIKAK SENEGALEKO SAINT-LOUISEKO GASTON BERGER UNIBERTSITATETIK" .....	27
SOLASALDIA: "EGOKITZAPENA ETA LAN-AUKERAK" .....	29
ONDORIO GISA .....	32
HIZLARIAK .....	33

# 15. KULTURA, KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

“Migrazioak, identitatea, bizikidetza eta antiarrazakeria”

UPV/EHUko Uda Ikastaroak

Bilbo, 2024ko iralen 30a - urriak 1

E G I T A R A U A 2 0 2 4

---

## > IRAILAK 30

### Topaketaren inaugurazioa erakundeekin

UPV/EHU · KCD GGKE · eLankidetza - Lankidetzarako eta Elkartasunerako  
Euskal Agentzia · Bizkaiaiko Foru Aldundia · Bilboko Udala.

### Inaugurazio-hitzaldia

Sani Ladan (Kamerun)

### Solasaldia «Indarkeriak elkargurutzatzen direnean»

Chaimaa Boukharsa (Amazigh/Afrifa)

Carla Davies (Euskadi)

Hajar Samadi (Maroko/Euskadi)

Daniela Becerra (Palmira, Colombia)

Tamara Clavería (Euskadi)

### Solasaldia «Kultura-aniztasuna eta artea eraldaketarako tresna gisa»

Laura Feal (Espainia/Senegal)

Maimouna Jallow (Gambia/Espainia)

Inaury Portuondo Cárdenas (Kuba)

Silvia Albert Sopale (Espainia)

**“Migrazio dinamikak Gaston Berger Unibertsitatetik (Saint Louis, Senegal)” Aurkezpena**

Fatou Diop Sall (Senegal)

Abdoul Sow (Senegal)

**Ikus-entzunezko emanaldia**

Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiko film laburren hautaketa.

**Solasaldia «Kulturarteko eta arrazakeriaren aurkako hezkuntza»**

Marra Junior (Senegal)

Sara García (Alcorcón/Bilbo)

Lola Boluda (Balentzia/Euskadi)

Moufdi Kamel (Maroko/Euskadi)

Amelia Barquín (Euskadi)

› **URRIAK 1**

**Solasaldia «Kazetaritza kritikoa eta antirrazista»**

Julio Flor (Euskadi)

Lucía Asué Mbomio (Alcorcón)

Sarah Babiker (Madril)

José Bautista (Espainia)

**Solasaldia «Egokitzapena eta lan-aukerak»**

Mbaye Gil (Senegal/Espainia)

Carmen Gheorghe (Errumania)

Katia Henríquez (El Salvador)

Koldo Usubiaga (Euskal Herria)

**Ondorioen txanda**


Partaide guztiak.

**Performancea**

Silvia Albert Sopale (Espainia)

Quinndy Akeju

NBC Gás Butano





# MIGRAZIOAK, IDENTITATEA, BIZIKIDETZA ETA ANTIARRAZAKERIA

Kultura Communication y Desarrollo GGKEak kulturari, komunikazioari eta garapenari buruzko hamabosgarren topaketa antolatu du, EHUren Uda Ikastaroen barruan, *Migrazioak, identitatea, bizikidetza eta antiarrazakeria* izenburupean. Bilboko udagoieneko bi egun eguzkitsutan aukera izan dugu askotariko egoeretara, jardunetara, hizkuntzetara eta lekuetara hurbiltzeko, hainbat ikuspuntutatik; izan ere, gaur egun nagusi diren abiadurarekin eta zaratarekin, batzuetan ez dugu horrelakorik ez ikusten ez entzuten. Bertan esan, pentsatu eta adierazitakoa jasotzea da jarraian azaltzen diren hitzen xedea. Elkarrekin gogoeta egiten jarraitzeko, irudikatzen, dantzatzen eta mundu hobe baten alde egiten jarraitzeko.



# AURKEZPENA



Kultura Communication y Desarrollo GGKEtik, atsegin handiz aurkezten dizuegu Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko hamabosgarren topaketa, EHUren Uda Ikastaroetan kokatua. Aurtan, kulturen arteko harremana areagotze aldera, elkarrizketa eta hausnarketa sortzeko ahaleginean jarraitzen dugu, bai eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak sustatzeko ahaleginean ere. Edizio honetan, migrazio-prozesuen erronkei eta aukerei buruzko hausnarketak eta esperientziak partekatuko dira, 10. GJHaren ildoari jarrikiz. Horren helburua da herrialdeen arteko eta herrialdeen barruko desberdintasunak txikitzea.

Hainbat mahai izango ditugu, eta, horietan, hezkuntzaren, sindikalismoaren, kulturen eta artearen sektoreetako hainbat espezialistak hartuko dute parte, migrazioek gure gizarte- eta kultura-sarea nola aberasten duten azaltzeko. Ikastaroan, elkarrizketak eta lankidetzak komunitate inklusibo eta erresilienteak erakitzeke duten garrantzia aztertuko da, eta gorroto-diskurtsoek bizikidetzak oztopatzeko eta kaltetzeko bakarrik balio dutela azpimarratuko, eta hain beharrezkoa den giza garapena geldiarazten dutela.


Ikasleei, profesionalei eta, oro har, herritarrei gonbit egiten diegu Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza-jardunaldi hauetan parte hartzera. Jardunaldietan, identitate guztietako pertsonok, elkarturik, gorroto-diskurtsoei aurre egin ahal izango diegu eta guztion ongi globala sustatu ahal izango dugu.

## **J. Carlos Vázquez Velasco**

*Zuzendaria*

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE

Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinenaren Nazioarteko Jaialdia





# INAUGURAZIO-HITZALDIA

*"Amnesia politikoa: migrazioen instrumentalizazioa"*

## **Sani Ladan**

Migrazioetan aditu eta kulturarteko bitartekaria.

*Sani Ladan* atzoko Austriako hauteskundeen emaitzak —eskuinaren garaipena— gogoratuz hasi zuen hitzaldia. Joera politiko hori agerikoa da gaur egun Europako mapa osoan: Italian, Danimarkan, Herbehereetan, Hungarian, Frantzia eta abarretan. Politika horren funtsezko elementuetako bat da, zalantzarik gabe, pertsonen lekualdatzearen erabilera interesatua eta arriskutsua. Tamalez, horrek emaitza onak dakartza hauteskundeetan. Horren guztiaren ondorioz, Europar Batasuneko migrazio-politikak eskuin muturrerantz bideratzen ari dira.

Egoera horretan, Sanik atzera begiratzea eta ahanzturari aurre egitea proposatu digu. *España en la memoria* 2005. urteko dokumentalaren zati bat erakutsi digu. XX. mendearen bigarren erdian espainiarrek Suitzara egindako migrazioaren memoria grafikoa da. Migrazio haren eta egungoaren arteko denbora-tartea lausotu eta ezabatu egiten da, irudien bidez: barrakoiak, langileak, irregularitasuna, mugak gurutzatzea, abusuak, zenbakiak izenen orde, xenofobia, oso antzeko leloak hauteskunde-kanpainetan eta abar. Memoria hori guztia ahanzturara kondenatu digu. Horregatik, gure gizartea amnesia jotzen da pertsonen mugimenduei dagokienez. Sanik gogora ekarri digunez, garai hartan Suitzak 5 milioi biztanle zituen eta espainiar jatorriko 700.000 lagun baino gehiago hartu zituen, orduko Suitzako herritarren % 14. Gaur egun, Suitzak baino hama-bi aldiz azalera handiagoa duen Espainian migrazioa biztanleria osoaren % 11koa da. Hala ere, diskurtso mediatikoez eta politikoez jende-oldeak, tsunamiak, olatuak eta abar aipatzen dizkigute etengabe.

Gure etorkin-iragana oroitzean, jende askok dio garai hartan migranteak lanera eta modu erregularrean joaten zirela, eta orain, antza, ez omen da horrela gertatzen. Baina datuek erakusten digutenez, garai hartan pertsonak —tartean kualifikazio eskaseko askok— modu irregularrean eta kamionetetan ezkatututa migratzen zuten, trafikatzailerei ordaindu ondoren, egun mafia esaten diegunez. Garai hartan itsaso berdea gurutzatzen zuten, Pirinioak, eta gaur egun bestelako itsaso bat, Ceutako eta Melillako mugetatik igarota. Orduko migratzaileek zenbaki bat hartzen zuten izenaren orde, eta oraingo atzerritarrak barneratze zentro batean edo bestelako dispositibo instituzional batean sartuta dagoen zenbakiak dira. Suitzan gaizkiletzat eta biolentotzat jo zituzten espainiar haiek, hegoalde-



ko basatitzat. Gaur egunean beste hegoalde batean kokatzen dugu basakeria, baina istorioak eta aurpegiak berberak dira. Aurrera egiteko nahiari buruzko istorioak dira, familiei etorkizuna eskaintzeko itxaropenaren aurpegiak.

Etxeak alokatzeko iragarkietan, adibidez, hasi gara ikusten «mororik» edo atzeritarrik ez dela onartzen. Lehen, telefono-deia eten egiten zuten beselako azentu bat entzutean. Orain ez dago ez gozotasunik ez lotsarik, eta gero eta esplizituagoak gara gure jarrera xenofoboak eta arrazistak adieraztean. Begirunearen, duintasunaren eta koherenziaren mugak gero eta lausoagoak dira, bigunagoak. Horregatik, gure gobernuko ordezkariak Donald Trumpen harresiaren aurrean asaldatzen badira, hura gaitzesten badute eta justizia eskatzen badute ere, ez dute berdin jokatzeko geure harresiarekin, Melillako hesiarekin, nahiz eta beste muga bat den eta indarkeria berbera adierazten duen.

Berriki izandako beste gertakari bat ere gogorarazi digu Sanik: Ikerketa Soziologikoen Zentroak irailean argitaratutako barometroan ondorioztatzen du «immigrazioa» dela arazorik handiena espainiarrentzat, % 30,4ko portzentaje metatura iritsi baita, hau da, gaiaren gaineko kezka ia bikoiztu egin da aurreko argitalpenetik hona. Emaizta horiek behar bezala baloratzeko, kontuan hartu behar da galdetegiaren diseinua, galderen ordena, nola eginda dauden eta testuingurua. Baina, batez ere, Sanik azpimarratu duenez, oso zaila da arazotzat ez hartzea aurretik arazo gisa eraiki dena. Gainera, uda honetan komunikabideetan egindako kanpainaren ondoren, «immigrazioa» leku guztietan azaldu denean, ez da harrizkoa herrita-



Sani Landan, inaugurazio-hitzaldian.



rrentzat ere funtsezko gai bihurtzea. Ildo beretik, migrazioaren gaia baliabide eta arma politiko gisa erabiltzen hasi da. Orain dela gutxira arte nolabaiteko adostasuna zegoen migrazioaren gaiaren inguruan, ahula izan arren. Baina joan den udan adostasun hori apurtu egin da eta gure egitura politikoa Europako herrialde askotan dutenarekin parekatu da.

Sanik zehaztu duenez, egoerari erreparatuta, 8.000 udalerrri baino gehiago dituen herrialde batean 57.000 pertsona banatzeaz hitz egiten ari gara. Kalkulua erraza da eta zenbakiak ez dute gezurrik esaten: udalerrri bakoitzari zazpi lagun dagozkio. Hori kontuan hartuta, zaila da inbasioaz hitz egitea. Bestalde, EUROSTATen azken datuen arabera, behera egin du jatorri atzerritarreko pertsonen iritsierak. Datuek erakusten dutenez, arrakala izugarria dago errealitatearen eta egoerari buruz dugun irudipenaren artean. Eta egunez egun handitzen ari dela dirudien arrakala horretan sartzen dira jokoan gorroto-diskurtsoak.

Nola egin aurre gorroto-diskurtso horiei? Baliagarriak al dira datuak, estereotipoak bertan behera uzteko? Saniren erantzuna irmoa da: ez. Haren esanetan, fanatismoari ezin zaio datuekin aurre egin. Era berean, arrazakeriari ez zaio moralismoaren apelazioekin aurre egiten. Arrazakeriari, gorrotoari, aurre egiteko bi modu daude: lehena, eskubideak bermatzea; eta, bigarrena, kontrabotere-guneak sortzea pertsonarik ahulenentzat.

# SOLASALDIA: “KAZETARITZA KRITIKOA ETA ANTIRRAZISTA”



## Julio Florrek dinamizatua

Kazetarien Euskal Elkargoko eta Euskal Kazetarien Elkarteko ordezkaria.

- **Lucía Asué Mbomio.** TVEko berriemailea.
- **Sarah Babiker.** El Saltoko migrazio-gaien arduraduna.
- **José Bautista.** Fundación porCausa erakundeko kazetaritza-ikerketen zuzendaria.

Behin baino gehiagotan aipatu ditu Sanik hitzaldian komunikabideak eta horiek gure gizarteetan duten garrantzia. Testuinguru horretan, nola egin kazetaritza kritikoa eta antirrazista? Posible al da? Galdera hori panorama global jakin batean egin da, non autoritarismorako joera gero eta handiagoa den. *Julio Flor kazetariak* gogorarazi digunez, joera autoritario horrek anker jotzen du demokraziaren eta kazetaritza kritikoaen kontra. Kazetaritza kritikoa eta antirrazista proposatzea Davidek Goliaten aurka borroka egitearekin pareka daiteke. Hala ere, egoera horri aurre egiteko eta borroka hori irabazteko iradokizun eta gogoeta ugari eskaini dizkigute *Lucía Asué Mbomio kazetariak, Sarah Babikerrek eta José Bautistak*:

1. **Salbuespenezko narratiba** baztertzea. Batez ere Afrikaren eta biztanleriaren lekualdatzeen inguruan eraikitako narratiba jakin batek etengabeko minaren eta sufrimenduaren ideia du oinarri. Lucíaren esanetan, narratiba horrek etengabeko minaren ikuskizuna inposatzen digu: pertsona migratua eta oinazea lotuta. Narratiba hori komunikabideetan eta lankidetzaren esparruan ere ikusten dugu, behin baino gehiagotan.

Narratiba horretan sartzen da, halaber, komunikabideek migratzaile batzuk heroiz gisa aurkeztea; halakoetan, neskatoak salbatzeko hormak eskalatu dituen *spidermana* edo adineko bat erreskatatzeko bere burua Bilboko itsasadarrera bota duen heroia erakusten dizkigute.

2. **Narratiba erreaktiboak** alde batera uztea. Sekulako astakeriak kontatzen dituzten albiste batzuen aurrean inpultsibitatez erantzutera jotzen dugu, eta berri horiek zabaltzen ditugu. Josek kontsigna argia oparitu digu: «**Kaka ez da partekatu behar**». Zenbait komunikabidek eta alderdi politikok proposatutako esparruan sartzen bagara, borroka galduko dugu. Beti azpimarratuko dugu esparru horrek duen garrantzia. Konnotazio-aukera potentziala esanahi gutxi batzuetara murrizteko gai denak, azkenean, guk ere buruan esanahi horiek baka-



Julio Flor, Lucía Mbomio, Sarah Babiker eta José Bautista, «Kazetaritza kritikoa eta antirrazista» izenburuko solasaldian.

rrik izatea lortuko du. Horrela, gauza batzuk pentsaezin edo ezinezko bilakatzen dira.

Hori dela eta, narratiba erreaktiboak alde batera utzi eta beste batzuk sortu behar ditugula adierazi digute Josek eta Sarak. Esparrutik atera eta kanpotik pentsatu behar dugula. Horizonteak ixten ari diren honetan, horiek zabaltzea lortu behar dugu, beste leku askotan sortutako galdera eta gogoeta berrien bidez. Ezer egin ezin dugun sentipenari aurre egin behar diogu. Marina Garcés<sup>1</sup> filosofo katalanak dioen moduan, beste mundu batzuk posible direla pentsatu behar dugu.

3. Eta hemen azaltzen da **beldurra**. Ez da beldur natural eta inozoa, ez. Etengabeko shock-doktrina baten pean elikatzen den beldurra dela diosku Sarak, Naomi Kleinen<sup>2</sup> lana gogora ekarrita. Beldurra ekologia politikoko baten parte dela esan daiteke. Politikoki erakargarria da eta onura itzelak dakarzkie beren herrialdearen defentsan dihardutela ziurtatzen dutenei. Beldurra pentsamendua eta gainerako emozioak deuseztatzen ditu.

Beraz, beldurra elikatzen ari dira, hau da, egonezinaren energia erai-kitzen eta bideratzen ari dira. Galtzeko ohiturarik ez duten pertsonak, azken urteetan prekaritatea eta etorkizunik eza hurbil ikusten hasi direnak, egonezina bideratzeko diana ezin hobea dira<sup>3</sup>. Nola entzun

---

1 Lan asko plazaratu ditu, baina hemen *Nueva ilustración radical* saiakera laburra nabarmendu digu, Anagramak 2017an argitaratu zuena.

2 Ikusi *La doctrina del shock: El auge del capitalismo del desastre*. Bartzelona. Paidós, 2012.

3 Gai horri buruz diharduen artikuluko bikaina da Imanol Zuberoren *Desamparo, populismo y xenofobia*. Revista Española del Tercer Sector, 2015, 89-117. or. Hemen eskuragarri: [file:///C:/Users/HP/Downloads/RETS\\_N32\\_4Desamparo\\_IZUBERO.pdf](file:///C:/Users/HP/Downloads/RETS_N32_4Desamparo_IZUBERO.pdf)



Sarah Babiker eta José Bautista, «Kazetaritza kritikoa eta antirrazista» izenburuko solasaldiko hizlariak.

talde horien haserrea? Nola hurbildu haiengana babesgabetasun hori jasotzeko?

4. **Egunerokotasunari buruzko narratiben** alde egitea. Auzoetan, kaletan eta giza interakzioa dagoen lekuetan ematen diren jendarteko harreman arruntei erreparatu behar diegula nabarmendu du Lucía. Komunikabide jeneralistek eraikitzen duten salbuespenezko narratiban ezkutatu egiten dira eguneroko borrokak. Argitara atera behar ditugu, horien berri eman, normalizazioa eta etsipena finka ez daitezten. Migrazioa ez dugu ulertu behar arazo meteorologiko bat balitz bezala.

Pertsona migratuak auzokoak dira, bizilagunak, eskolatik irtetean ondoan ditugu parkean, supermerkatuko ilaran aurkitzen ditugu, gurekin batera haserretzen dira auzoan garbiketa-zerbitzuak falta bada, txutxu-mutxuak partekatzen ditugu, elkarri laguntzen diogu eta elkarrekikotasunean oinarritutako harremanak ditugu haiekin. Konta ditzagun istorio horiek, dio Lucía, eta ez ditzagun pertsona horiek etorri berrizat jo, bazter dezagun jarrera hori. Horren aurrean, hitz egin dezagun errotzeaz.

Erantzunaren narratibatik urrundu behar dugu, eta zer ez garen azaltzeari utzi. Hor dugu erronka: narratiba berriak eraiki eta ehuntzeko gai izan behar dugu.

5. Baina, **nork hitz egiten du? Noren izenean?** Lucía auzi delikatuari heldu dio kolore-kuotari buruz hitz egitean. Arrazakeriaren aurkako mugimenduek eta pertsona arrazializatuak funtsezko zeregina izan behar dute komunikatzeko moduetan, noski. Izan ere, horren alternatiba pertsona zuriek kontatutako arrazakeria da, eta hori anekdota hutsa da. Baina, kontuz! Pertsona arrazializatuok gure azalaren ko-



loreaz baino zerbait gehiagoz hitz egin baitezakegu, Lucía dioenez. Pertsona arrazializatuak beste gai eta egoera askotan adituak direnez, haiengana jo dezakegu, haiengana jo behar dugu.

Nork egiten du lan komunikabide jeneralistetan? Nola osatzen dituzte erredakzioak? Zergatik ez du ondoriorik komunikabideetako arrazakeriak? Istorio eta kontatzaile berriak behar ditugu.

- 6. Eta datuak?** Datu zehatzak ditugu, jakina. Eta garrantzitsuak eta beharrezkoak direla azpimarratu du Josek. Baina gizarte honetan, informazio- eta desinformazio-jasa etengabea den honetan, pertsonak ez dituzte datuak gogoan hartzen. Datuak erabili behar dira errealitatea ulertzeko, baina, gainera, emozioaren osagaia gehitu behar zaie. Nola? Berriro ere, egunerokotasunera joz, inguruneora.
- 7. Nola azaldu Afrika?** Hasteko, Lucía salatu duenez, ez dago korrespondentsalik, Marokon izan ezik. Eta hizketagaia ez da izaten Afrika bera, migrazioak baizik. Hegoaldeko mugara begiratzen dugu, Europara jauzi egin nahi duen jendea pilatzen den lekuetara. Eta hori ez da kasualitatea. Afrikari gizatasuna kentzeak eta lurraldea aurpegirik, biografiarik eta historiarik gabeko masa gisa erakusteak beldurra sorrarazten du. Inork ez digu hitz egiten indarkeriaren pribatizazioaren ondorio diren gerrez, potentzia kolonizatzaileen jardunbideez eta abusuez, kolonialismo digitalaz eta abarrez.

Kontinente batetik bestera narratibak alderantzikatu egiten dira, eta Afrikako edozein herrialdetan ama kementsutzat hartzen dena ama arduragabea da Europako gizarteetan; «basati» onbera eta exotikoak «basati» hutsak dira Europan. Laurogeita hamarreko hamarkadan guri lana kentzera zetozen, eta orain gure emakumeak eraso ditzaketen talde biolentoak dira. Sara R. Farrisek *femonazionalismo*<sup>4</sup> esaten dio horri; izan ere, azken urteetan eskuin muturreko nazionalistak mobilizatu egin dira gizon musulmanak Europako gizarteetan benetan arriskutsuak direla zabaltzeko, batez ere emakumeekiko duten tratatu zapaltzailea nabarmenduta. Bat-batean matxismoaren kontrako borroka edo emakumeen eskubideak interesatuko balitzaizkie bezala.

- 8. Azkenik, Sarak egoki gogoratu duenez, **integrazioa ez da (soilik) diskurtsiboa.**** Politika publiko integralak sortu behar ditugu, etxebizitza duina, lan-merkatu sartzeara, kalitatezko zerbitzu publikoak eta abar bermatuko dituztenak.

---

4 Hemen kontsulta daiteke: *Claves de Política Global*. Corrochano, Carlos (zuzendaria).artzelona. Arpa, 2024.

# SOLASALDIA: “INDARKERIAK ELKARGURUTZATZEN DIRENEAN”



*Estatu Batuetako teoria feministak gure artean dauden desberdintasunak azaldu behar ez baditu, ezta gure zapalkuntzaren ondoriozko desberdintasunak ere, orduan, nola uler daiteke zuek teoria feministari buruzko kongresuetara joaten zareten bitartean etxea garbitzen dizueten eta zuen seme-alabak zaintzen dituzten emakume gehienak pobreak eta beltzak izatea? Zer teoriak babesten du feminismo arrazista?*

Audre Lorde

## **Chaimaa Boukharsarrek dinamizatua**

Afrocolectiva-ko sortzailekidea.

- **Carla Davies.** Mujeres con Voz elkarteko lehendakaria.
- **Hajar Samadi.** Bidaya elkarteko sortzailea.
- **Daniela Becerra.** LGTBIQ+ ekintzailea.
- **Tamara Clavería.** AMUGE Euskadiko emakume ijitoen elkarteko lehendakariordea.

Kazetaritza kritiko eta antirrazistaren aukeratik, genealogia luzea duen kontzeptu batera igaro gara, Euskadin duela gutxi modan jarri den kontzeptura. Interseksionalitatea tresna boteretsua da, baina edukiz hustu dela salatu dute *Carla Daviesek, Hajar Samadik, Daniela Becerrak, Tamara*



Hajar Samadi, Carla Davies, Tamara Clavería eta Chaimaa Boukharsa, «Elkargurutzatzen diren indarkeriak» izenburuko solasaldian.



*Claveriak eta Chaimaa Boukharsak.* Instituzioek eta akademiak bere egin duten terminoa da. Hain zuzen ere, gogora ekarri digutenez, ideia hori Bostoneko *The Combahee River Collective* taldeak plazaratu zuen 70eko hamarkadan. Feminista, beltz eta lesbiana ziren emakumeek osatzen zuten taldea, eta haren izenak Harriet Tubman omentzen du, esklabo, iheslari, abolizionista eta erreformista izan zen emakumea, 1863. urtean 750 esklabo baino gehiago askatu zituen.

Arraza-zapalkuntza ikusteko emakume zurien —ustez ahizpa zituztenen— ezintasuna salatzen zuen taldeak, batez ere. Nazionalismo beltzak, eskubide zibilen aldeko mugimenduak, ezkerak eta feminismo zuriak entzuten ez zituztela eta, 1977an *The Combahee River Collective Statement* manifestua kaleratu zuten, feminismo beltzaren historia garaikidean funtsezkoa den dokumentua:

*«... aktiboki dihardugu borrokan arraza-, sexu- eta klase-zapalkuntza-  
ren zein heterosexualitateak eragindakoaren kontra. Zapalkuntza-sis-  
tema nagusiak **elkarri lotuta** daudela kontuan hartzen duten analisi  
eta jardunbide integratuak garatzea geure egiteko partikularra dela  
uste dugu».*

Ordutik aurrera, feminista beltzek politika antirrazista —feminismo zu-  
riaren aurrean— eta antisexista —gizon beltzen aurrean— garatu zuten,  
ezinbestean.

Beraz, **interseksionalitatea nozio politikoa** da. Kontua ez da ezaugarri  
bereizgarrien batuketa aztertzea, sarritan gertatzen denez. Ez da iden-  
titate-kontua ere, Kimberlé Crenshawek<sup>5</sup> gero esango zuenez, baizik eta

---

5 Estatu Batuetako emakume legelari beltza, 1989an intersectionality (interseksionalitate) termi-  
noa sortu zuena.



Daniela Becerra, Hajar Samadi eta Carla Davies, «Elkargurutzatzen diren indarkeriak» izenburuko solasaldiko hizlariak.





Chaimaa Boukharsa, «Elkargurutzatzen diren indarkeriak» izenburuko mahaiaren dinamizatzailea.

**identitate jakin batzuk indarkeria bideratzeko tresna bihurtzen dituen egitura.** Hau da, nozio horrek aukera ematen digu aztertzeko generoaren, klase sozialaren eta «arrazaren» gizarte-kategoriak nola gurutzatzen diren eta nola eragiten dioten elkarri pertsonen identitate sozialak, jardunbide sozialak, arau instituzionalak eta ideologiak eratzean, eta nolako ondorioak dituzten botere-harremanetan.

Interseksionalitateaz jabetze hori *estruktibismo epistemikoaren* parte dela esan dezakegu? Izan ere, prozesu horretan, mendebaldeak ideiak espoliatu eta jatorrizko testuinguruetatik ateratzen ditu, eta, hala, despolitizatu egiten ditu eta mendebaldeko logiken arabera esanahi berria ematen die. Tamalez, terminoaren despolitizazioa gertatzen ari da. **Interseksionalitatearen barruan dena sartzen bada, orientazio sexualetik hasi eta desgaitasuneraino, kontzeptuaren jatorrizko zentzua desagerrarazi egiten da, eta, batez ere, gure gizartearen testuinguruan, «arrazaren» kontua desagerrarazten da.** Ildo horretan, badirudi feminismo zuriari kosta egiten zaiola ulertzea emakume horientzat atzerriartasuna emakumetasuna bezain garrantzitsua dela, edo askoz garrantzitsuagoa. Emakume horiek azalaren fenotipoaren, azentuaren edota janzkeraren bidez irudikatzen dute atzerriartasuna.

Irudikapen-esperientzia horri buruz mintzo zaigu Tamara. Haurtzaroan konturatu zen ijitoa zela eta esperientzia hori ez zela individuala, historia luzea duen esperientzia baizik. Emakume ijitoek eguneroko egoeretan bizi duten arrazakeria- eta zapalkuntza-egitura aurkitu zuen. Carlak kontatu digu Argentinari konturatu zela bere latino-izaeraz, lekualdatze-testuinguru batean, beste nortasun bat eraikitzean. Euskadin emakume asko dago Hajarren egoeran: bertan jaio dira, baina migratuek dituzten antzeko arazoei egin behar diete aurre. *Amatxo* izanik, Hajarrek ez du nahi seme-alabak gehiegi babesten dituen amatzat har dezaten, ez ama





erradikaltzat ere, baina haren ustez asko dira oraindik ageriko egin behar diren jardunbideak, ohiturak eta konbentzioak, eta garrantzitsua da hori egitea. Danielak amaren eta aitaren hitzak gogoratu ditu, bera babestu nahian ez nabarmentzea eskatu baitiote, «profil apala» izatea. «Baina nerabezaroan eztanda egiten duzu eta guztiagatik borrokatzen duzu, kalean zein etxean. Zure bidea egiten hasten zara, bukaerarik ez duen bidea», azaldu du.

Feminismo zuriaren espazioetan zer nolako harrera izan du emakume hauek pertsonifikatu eta bizi duten feminismo dekolonialak? «Gehiengoa den feminismoan ordezkaturata sentitzen zarete?», galdetu du Chaimaak. Erantzuna argia da: ez. Dirudenez, **aniztasunaren onarpena da feminismoak Euskadin egiteke duen kontuetako bat**, Hajarren esanetan. Itxuraz seguruak diren espazioak korapilatsu bihurtzen dira Danielarentzat eta kideentzat, arrazakeriaren gaiak agenda transfeministan sartzeko zailtasunak dituela ikusten baitute. Horregatik, Danielak dio abizenak dituzten feminismoak maite dituela. «La manada» kasuaren ondoren kaleetan bizi izandako mobilizazio itzelak ekarri ditu gogora, eta Huelvan sasoiko langile gisa diharduten emakumeen egoerari eman zaion erantzun eskasarekin alderatu ditu. Antzeko arrakala ikusi zen zaintza-greban ere, emakume eta erakunde guztiak ez baitzuten bat egin mobilizazioarekin, Tamarak gogoratu duenez. Emakume migratuek, arrazializatuak eta ijitoek pentsatu zuten feminista zuriak planteamendu itxiarekin bat egitera gonbidatu zituztela, haien eskaerei entzungor eginda<sup>6</sup>.

Emakumeontzat feminismo hegemonikoa pribilegiozko leku bat da, teoriko eta ekintzaile feminista zuriak izatearen, onarpenaren eta eskubideen eremuan dihardutelako kontzeptuak lantzen, espazioak eratzen eta kaleetan antolatzen. **Haiek, emakume migratuak eta arrazializatuak direnez, ez izatearen eremuan daude.** Arrakala horretan datza pribilegio zuria. Hortaz, hau da galdera: zer egin eta nola berreskuratu eremu askotan kendu dieten boterea?

Guztiak bat datoz diskurtsoaren kontrola, euren arteko aliantzak eta eremuan hautaketa aipatzean. «Diskurtsoa guk kontrolatu behar dugu, benetako adituak geu garelako, gure esperientziekin», adierazi du Hajarrek. «Gure arteko aliantzak behar ditugu, askotan ez ditugulako kideen zapalkuntzak ezagutzen. Eta ez ditugu ezagutzen gu guztiak begi zurien ikuspegitik ikusiak izan garelako eta horren arabera hitz egin delako gutaz».

Baina, bukatzeko, Chaimaak ohartarazi du kontuz ibili beharra dagoela, arazoa ez delako konponduko ordezkari-tza soilarekin —Luciak beste sola-

---

6 Hemen kontsulta daiteke: <https://www.ecuadoretxea.org/por-que-racializadas-migradas-y-gitanas-no-se-suman-a-la-huelga-feminista-del-30n/>



saldi batean aipatutako kuotarekin—. Errekonozimendua ulertzeko modu bat oso lotuta dago AEBko multikulturalismo neoliberalarekin. **Talde indigenek eta aborigenek aspaldi jarri zuten zalantzan multikulturalismoa, beren nortasunen irudikapen exotiko eta folklorizatzailea baino zerbait gehiago eskatzen baitzuten: subiranotasuna, autonomia eta beren bizimoduei eta lurraldeei buruzko erabakiak hartzeko eskubidea.**

Chaimaak azpimarratu duenez, **antiarrazakeria politikoa jorratu behar da, ez bakarrik soziala edo pertsonen artekoa.** Berdintasun Ministerioaren kanpaina berria<sup>7</sup> eduki politiko hutsalaren adibidea da. Arrazakeria kontu indibidual gisa azaltzen da bertan, eta ez egiturazko arazo gisa —kasu horretan erakundeei eta estatu-nazioaren formari berari ere zuzenduta egongo litzateke—. Solasaldia bukatzeko, Chaimaak esklabo iheslarien borroka<sup>8</sup> eredugarria ekarri du gogora, subiranotasunari lotutako askatasuna eta gizarte bat beste batetik kanpo edo haren gainean erakitzea. Plantazioak nola ezereztu pentsatzen zuten bitartean askatasun-eremua eraiki zuten. Mundu hura oso urrun ikusten dugu, bai denboran eta bai espazioan ere, baina agian ez dago hain urruti, Huelvara edo Almeriako plastikoetara begiratzen badugu.

---

7 Ikusi: <https://www.igualdad.gob.es/comunicacion/campanas/mirar-con-distinta-cara-es-racismo-021-contra-el-racismo-no-mires-hacia-otro-lado/>

8 Esklabo iheslarien borroka eta barrutien sorrera izan ziren afrikar jatorriko emakume eta gizonen borrokarako, erresistentziarako eta askapenerako estrategia nagusiak, Karibeko mosaikotik Abya Yalara. Zimarronaje edo esklabo iheslarien borrokaren adibide ugari dago; adibidez, Alonso de Illescacek esklabo iheslari edo zimarroien komunitatea finkatu zuen 1553an Esmeraldas, Ekuadorren; 1603an, Benkos Biojok bera eta bere jarraitzaileak askatzera behartu zuen Kolonbiako erregimen koloniala, eta beren lurraldea Amerikako lehenengo lurralde askea izan zen; Jamaikako maroonek, 1655etik 1740ra, gerra heroikoa egin zuten britainiarren aurka, Nanny buruzagi zutela (emakume hori militar bikaina, sendalaria eta komunitateko liderra izan zen).



# SOLASALDIA: “KULTURARTEKO ETA ARRAZAKERIAREN AURKAKO HEZKUNTZA”

*Kulturarteko hezkuntzaren helburu ukaezina eta definitzailea ez da izan behar aniztasuna errespetatzea edo tolerantzia gurtzea, baizik eta desberdinak baino berdinoak garela sinestea. Eta hori hezkuntza-erronka handia da, aniztasuna agerikoa baita, baina berdintasuna konbentzimendu moralaren emaitza da. Eta konbentzimendu horretan hezteko lana askoz zailagoa da.*

F. Carbonell i Paris

## Marra Juniorrek dinamizatu

Devenir elkarte kulturalaren sortzailea.

- **Sara García.** Matiz elkarteko prestakuntza-sailaren arduraduna, zeinaren esku baitago ZASI! Euskadiko Zurrumurruen Aurkako Sareko idazkaritza teknikoa.
- **Lola Boluda.** Ongi Etorri Eskolara proiektuaren sortzailea.
- **Moufdi Kamel.** BILTZEN – Gizarteratze eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuko teknikaria
- **Amelia Barquín.** Kulturarteko hezkuntzako irakaslea Mondragon Unibertsitatean.

---

Zer da kulturarteko hezkuntza? Eta arrazakeriaren kontrako hezkuntza? Ba al dago alderik bien artean? Horiek dira *Marra Juniorrek* solasaldira ekarri dituen lehenengo galderak. Harekin batera mahai-inguruan bildu dira *Sara García, Lola Boluda, Moufdi Kamel eta Amelia Barquín.*

Kulturarteko hezkuntzaren esparrua zehazte aldera, Sarak lehenengo erreferentzia ekarri du mahai gainera: Carlos Giménez Romero; harriz markadak daramatza kulturartekotasunak adierazten duen aniztasuna kudeatzeko eredu publikoaren teoria eta praktika lantzen<sup>9</sup>. Izan ere, hezkuntzaren esparruan sortu dira kulturartekotasunaren lehenengo formulazioak eta jardunbideak, seguruenik ikasgeletan oso nabarmenak direlako aurreko eredu gabeziak eta askotariko jardunbide soziokulturaleko pertsonen arteko interakzioa.

---

<sup>9</sup> Carlos Giménez Gize Antropologiako katedraduna eta DEMOSPAZ – Giza Eskubideen, Demokraziaren eta Bakearen eta Indarkeriarik Ezaren Kulturaren Institutuko zuzendaria da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Argitalpen ugari plazaratu du kulturartekotasunaren eta kulturarteko hezkuntzaren arloan. Haren artikulu eta liburua asko hemen kontsulta daitezke: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=80706>



Hainbat premiari erantzuteko asmoz proposatu da **kulturarteko hezkuntzaren paradigma berria**: curriculum monokulturalak erabat berritzea, eskolan taldeak ez banantzea, kulturak monolitikotzat ez jotzea, kultura bereziak izatearen aberastasuna hezkuntzaren esparrura eramatea, eta, azken finean, eskolako interakzioan hezkuntzaren aldetik esku hartzea eta gizarteko interakziorako prestatzea.

Arrazakeriaren kontrako hezkuntza haratago doa, eta arrazakeriazko egituretara eta portaeretara bideratzen da. **Arrazakeriari** aurre egitea da kontua. Izan ere, **desberdinkeria justifikatzen duen ideologia** da, talde batzuei pribilegioak eta abantailak eskaintzen dizkie eta beste batzuei gizatasuna kentzen die, haien eskubideak murrizteaz gain. Xabier Besalúk dioenez, «ez du axola horretarako erabilitako ezaugarria zein den (azalaren kolorea, erlijioa, hizkuntza, jatorria, etnia, kultura-adierazpenak, bizilekua...); menderatze-hierarkia da benetan garrantzitsua dena, mundua, orokorrean, eta gizarteak, bereziki, zatitzen baititu. Hain zuzen ere, hierarkia horrek berezi egiten ditu, batetik, erabat gizatasunezkoa, zibilizatua eta goi-mailakoa dena, eta, bestetik, gizatasunerako prozesuan daudenak, zuzenean basatizat, primitibotzat eta behe-mailakotzat jotzen direnak<sup>10</sup>».

Beraz, badirudi **kulturarteko hezkuntza eta arrazakeriaren kontrako hezkuntza eskutik** doazela, eta gure hezkuntza-proposamenean sartu beharko ditugula, hein berean. Askotariko estrategiak garatu beharko dira, eta horien artean funtsezkoa izango da hezkuntza-komunitate osoa sentsibilizatzea, batez ere irakasleak, Kamelek adierazi duenez. **Hezkuntzako profesional guztientzako etengabeko prestakuntza eta sentsibilizazioa** eskoletatik haratago eraman beharko litzateke, hezkuntzak pre-

---

10 Ikusi: <https://eldiariodelaeducacion.com/2020/02/18/de-la-interculturalidad-al-antirracismo/>



Marra Junior, Amelia Barquín, Lola Boluda, Moudfi Kamel eta Sara García, «Kulturarteko eta arrazakeriaren aurkako hezkuntza» izenburuko solasaldian.



Amelia Barquín, «Kulturarteko eta arrazakeriaren aurkako hezkuntza» izenburuko solasaldiko hizlaria.

sentzia duen hezkuntza-maila guztietara, irakasle-ikasketetatik hasita.

Mahai-inguruan bildutako adituek esan dutenez, irakasleen aldetik erre-zeloa nabaritzen dute arrazakeriaren kontrako pedagogia lantzeko ekin-tzak martxan jarri nahi dituztenean. Irakasleek, orokorrean, ez dute beren burua prestatuta ikusten eta ez dira ausartzen. Jardunean diren irakas-leentzako nahitaezko prestakuntza etengabea lagungarria litzateke ho-rrelako gaiak lantzeko beldurra gainditzeko, zalantzarik gabe. Baina ez da irakasleen kontua bakarrik; «bertako» biztanleriak ere arazoak izaten ditu, batez ere jatorri atzerritarreko eta/edo arrazializatutako pertsona eta familia askoren haserrea jasotzeko, beren pribilegiozko egoeratik. Kasu horietan «entzuteko prest» egotea komeni da, eta egokia izan liteke literatura espezializatura jotzea, adibidez, Robin di Angelo egilearen *Fragilidad blanca. Por qué es tan difícil para los blancos hablar de racismo* lana irakurtzea.

Era berean, irakasleei dagokienez, interesgarria litzateke haien artean aniztasuna handiagoa izatea, hau da, ikasle-aniztasunaren isla izan behar duten irakasle-taldeetan pertsona arrazializatuak eta/edo migratuak ere egotea. Azkenik, irakasleen gaiaren harira, azpimarragarria da Lolak dioena, sensibilizazio- eta prestakuntza-lana askoz errazagoa dela lehen hezkuntzan, familien presentziagatik. Bigarren hezkuntzan, familiek ho-rrenbesteko parte-hartzerik ez dutenez, lan hori askoz zailagoa da. Datu hori kontuan hartu beharko litzateke beti hezkuntza-programak diseina-tzean. **Familiak hezkuntza-komunitatearen parte dira**, eta funtsezkoak dira dagozkigun prozesuetan.

Euskadin abiapuntu dugun egiturazko egoera nabarmendu du Ameliak: **sistemaren ezaugarrietako bat eskola-segregazio handia da**. Kulturar-teko hezkuntza antolatzeko ezinbestekoa da elkarrekin egotea eskola berberetan, ikasgela berberetan. **Segregazioa badago, ez dago interak-ziorik**. Dena den, eskola barruko segregazioari ere erreparatu behar dio-



Moufidi Kamel, «Kulturarteko eta arrazakeriaren aurkako hezkuntza» izenburuko solasaldiko hizlaria.

gu. Nola elkartzen dira taldeak? Lotura horietan, zenbaterainoko pisua du jatorriak? Komenigarria da, gainera, eskolaz kanpoko denboran arreta jartzea, segregazio-gune horri ez baitzaio kasu handirik egin.

Lolak aipatu duenez, horri guztiari Euskadiren bereizgarritasun soziolinguistikoa gehitu behar zaio. Euskararen ezagutza bermatzea goranzko mugikortasunaren zati bat bermatzea da, eta hori integratiorako elementu garrantzitsua da. Ildo hori jorratzen du Lolak erakutsi digun «Ongi etorri eskolara» programak. Eskola eta komunitate inklusiboak xede dituen kulturarteko eredu pedagogikoa abian jartzen laguntzen die Gipuzkoako eskolei, **euskara ikasle guztien aukera-berdintasuna sustatzeko funtsezko elementutzat hartuta**<sup>11</sup>. Bide beretik doa «Kulturartekotasuna eta euskara» proiektua, Mondragon Unibertsitateak, EHUK eta UEMAK (Udal-erri Euskaldunen Mankomunitateak) eskola eta udal-erri euskaldunetan aurrera daramatena.

Baina mota guztietako neska-mutilak eta familiak biltzen dituen eskola batean, adibidez, garrantzitsua izan daiteke **atzeritar jatorriko ikasleak atzeritar gisa tratatu beharrean, hazten eta garatzen ari diren pertsona gisa tratatzen hastea, bizi diren tokikoak direla kontuan hartuta**. Ikasleek —hemen jaiotakoek zein beste lekuren batetik etorritakoek— gurasoen identitatea besterik ez dutela uste da, eta horren arabera tratatzen dira; hori egiteari utzi behar zaio. Egokia litzateke, halaber, ikasle horiei (batez ere bestelako fenotipoa duenari) ez galdetzea nongoak diren. Ikasle guztiak hemengoak dira. Hori da printzipioa eta mantra.

11 Ikusi: <https://www.ongietorrieskolara.org>



# SOLASALDIA: “KULTURA-ANIZTASUNAREN ETA ARTEAREN BALIOA ERALDAKETARAKO TRESNA GISA”

*Ezetz esaten dizutenean, zuk baietz esan.*

Inaury Portuondo

## Dinamizado por Laura Feal

Periodista freelance y miembro de la Asociación Hahatay Son Risas de Gandiol.

- **Maimouna Jallow.** Directora de Positively African.
- **Inaury Portuondo Cárdenas.** Especialista principal de la Casa de África de la Oficina del Historiador de la Habana, Cuba.
- **Silvia Albert Sopale.** Socia fundadora de Periferia Cimarronas.

Artea, hezkuntzaren antzera, gizarte-eraldaketarako eragile garrantzitsua da, aukera ematen baitigu beste mundu batzuk irudikatzeke, geure buruari nor garen galdetzeko, beste mapa batzuk bizitzeko eta ibilbide berri eta poliedrikoak sortzeko. Agertokiak, museoak, ipuinak, margoak, erritmoak... **eraldatzaileak izan daitezkeen hizkuntzak** dira guztiak.

Mahai-inguruan bildutako hiru emakumeek beren ibilbide indibidual eta kolektiboen berri eman dute. Ibilbide horietan, hezkuntzaren eremuan bezala, nabaria da **afrikarren edo haien ondorengoen erreferentzia-falta**. Ikusezintasuna desagerraraztea eta beste ahots eta istorio batzuei leku



Laura Feal, Silvia Albert Sopale, Inaury Portuondo eta Maimouna Jallow, «Kultura-aniztasunaren eta artearen balioa eraldaketarako tresna gisa» izenburuko solasaldian.





egitea da guztien apustua, eta badakite ikusezintasun hori testuinguru sozioekonomiko jakin batzuetan eratzen dela. Haustura garrantzitsu horretara iristeko, aurretik haustura pertsonalagoa, intimoagoa, mingarriagoa baina, aldi berean, askatzailea egin behar izan dute: **artista izateko eskubidea** dutela sentitu.

Afrikaren inguruan dauden estereotipoak sendoak dira, eta lotuta daude gure herrialdeak oraindik ere itzalpean gordetzen duen historia kolonialarekin. Azkenean, herrialdeak ez du bere gain hartu nahi «bertako» biztanleriaren pribilegiozko egoera azaltzen duen egitura, ez eta bere buruaz eta egitura sozial, ekonomiko eta politiko jakin batean duen posizioaz jabetzeko dituen zailtasunak ere.

**Ukatutako, murriztutako eta isildutako historia horiek argitara atera behar dira, duten konplexutasun osoarekin, eta edozein formatu artistikok balio du horretarako.**

Horren adibide da Inaury Portuondo Cárdenasen lana. Kubako *Casa de África del Historiador de la Habana* erakundeko<sup>12</sup> espezialista nagusia da Inaury. Irlan dagoen Afrikako legatu guztia jasoko duen ondare-hezkuntza landu behar dela dio, apaingarri folkloriko hutsa izatera mugatu gabe.

**Legatu handia dago transmititzeko eta gordetzeko**, eta, horren aurrean, Inauryk zera galdetzen du: Kubako gizartean, zergatik izan behar du derrigorrezko erreferentzia Greziako kulturak eta ez Yoruba inperioak? Kontu horiek guztiak bitarteko ofizialetara eta politika publikoetara eramatea erronka dela deritzo.

Silvia Albert Sopalek, berriz, Santseko (Bartzelona) *Periferia Cimarronas*<sup>13</sup> arrazakeriaren kontrako antzerki-proiektuari buruz hitz egin digu. Proiektuaren asmoa da bestelako narratibak, imaginario berriak eta **artista arrazializatuentzako, migratzaileentzako** eta marjinetan bizitzera bultzatutako pertsona guztientzako **gunea** sortzea. Taldean eta auzoan aurrera daramaten esperientzia horren bidez, auzotarrek lehen aldiz ikusi dute zuria ez den pertsona bat istorio bat kontatzen. Elkarri ukitzeko esperientzia eraldatzailea da. Zuzendari, antzerkigile eta aktore izan da *No es país para negras* (2016) eta *Blackface y otras vergüenzas* (2019) lanetan. Jardunaldian bertan, bukaeran, performance indartsu eta gozagarria eskainiko digu, eta galderak egingo dizkigu.

Maimouna Jallowek, hamabost urtez kanpoan bizi ondoren, Silviaren antzezlan baten kartela ikusi zuen aspaldi, eta Espainian bizi zitekeela pensatu zuen, lekua bazuela, gauzak aldatzen ari zirela. Artistak eta ekin-

12 Ikusi: [https://www.ecured.cu/Casa\\_de\\_%C3%81frica](https://www.ecured.cu/Casa_de_%C3%81frica)

13 Ikusi: <https://periferiacimarronas.es/>



Laura Feal, Silvia Albert Sopale, Inaury Portuondo eta Maimouna Jallow, «Kultura-aniztasunaren eta artearen balioa eraldaketarako tresna gisa» izenburuko solasaldian.

tzaileak justizia sozialaren eta artearen inguruan biltzen dituen *Positively African*<sup>14</sup> erakundearen sortzaileetako bat da, besteak beste. Haren esanetan, eraikitzeke helmuga bat falta zaigu, **afrikar identitate komun** bat. Sare transnazionalek harremanetan jartzen dituzte diasporako komunitateak eta kontinentea, eta guneak eratzen dituzte iraganera begiratzeke eta etorkizuna gure historietatik eta kulturetatik abiatuta eraikitzeke. Haur askok ez dute erreferentziazko heroi afrikarrik, ez ikasgeletan, ez aisialdiko guneetan. Afrikar kontinenteko irudiak, jakintzak eta jardunbideak ikusaraztea eta berreskuratzea da kontua, oraingoan ere. Europak egindako Afrikaren kolonizazioa harrapaketa izan zen, bertako herrien bizimoduak suntsitu zituen. Halaber, bertako kulturari uko egiteko eta bestelako ideiak eta kategoriak ezartzeko prozesua izan zen. Mundua ulertzeke modua desunibertsalizatu beharra dago, eta **Afrikak ezagutza-ekoizle** gisa duen rola nabarmendu.

---

14 Ikusi: <https://www.positivelyafricanmedia.com/>



Maimouna Jallow, «Kultura-aniztasunaren eta artearen balioa eraldaketarako tresna gisa» izenburuko mahaiko hizlaria.

# AURKEZPENA: “MIGRAZIO-DINAMIKAK SENEGALEKO SAINT-LOUISEKO GASTON BERGER UNIBERTSITATETIK”



## Fatou Diop Sall

Saint-Louiseko Gaston Berger Unibertsitateko Soziologiako eta Antropologiako irakaslea.

## Abdoul Sow

Senegaleko Ikasketa eta Dokumentazio Zentroko irakasle eta zuzendaria.

«Zer egiteko du eta izan du unibertsitateak estereotipoetan eta klixeeetan oinarrituta sortu den Afrikari buruzko kontakizunaren eraikuntzan?» galdegin du *Fatou Diop Sall*ek. Egoeraren aurrean, kasu jakinetatik, pertsona ikusezinen kontakizunetatik eta jardunbideetatik ateratako esperientziak eta jakinduria ardatz izango dituen unibertsitate-lana —metodologia zientifikoan oinarritutakoa— eskatu du Fatouk. Haren iritziz, unibertsitateek, orokorrean, jada ez dute errealitatearekin kontaktuan dagoen jakintza sortzeko eginkizuna betetzen. **Unibertsitateak egiazko narratibak ekoiztu eta eraikitzeke funtsezko eragile izan behar du.** Horretarako, migrazio eta lekualdatze garaikideen gaineko ikuspegi transnazionala eta interseksionala lantzearen garrantzia azpimarratu du Fatouk.

*Abdoul Sow*ek Saint-Louiseko museoarekin aurrera daramaten lankidetzaharremanen berri eman digu, eta bitartekaritarako, hezkuntzarako eta eraldaketarako gunea sortzen ari direla azaldu du. Museoek duten egitekoari buruzko hausnarketa egin du, eta mendebaldeko paradigmatik abiatuta eraiki direla azaldu du, hein handi batean turismora bideratuta



Fatou Diop eta Abdoul Sow, «Migrazio-dinamikak Senegaleko Saint-Louiseko Gaston Berger Unibertsitateko» izenburuko aurkezpenean.



Fatou Diop



Abdoul Sow

daudela. Ildo horretan, unibertitatearekiko elkarrizketaren eta lankideztaren eginkizun garrantzitsuetako bat **museoen dekolonizazioa** dela dio. Hala, paradigma-aldaketa proposatu du Abdoulek, tokiko bereizgarritasunen bidez bertako biztanleriak leku horietan bere burua ezagutu dezan<sup>15</sup>. Dekolonizazio horrekin batera hezkuntzako eskuliburuen dekolonizazioa eraman beharko litzateke aurrera.

Beren azalpenekin, Fatouk eta Badoulek gure testuingurura ekarri gaituzte: zer esan dezakegu Espainiako museoen dekolonizazioaz? Gaia joan den urtarrilean heldu zen eztabaida publikora, Ernest Urtasun Kulturako ministroak iragarri zuenean gobernuak estatuko museoetako bildumak «berrikusteko» asmoa duela, «esparru koloniala gainditzeko» xedearekin. Iraganean, arkeologiako, antropologiako eta etnologiako museoak kolonizazioaren erakunde zientifiko gisa eratu ziren, eta, aldi berean, identitate nazionalaren narrazioaren garaikur gisa. Gauzak aldatu badira ere, iraganaren arrastoek indarrean dira. Narratiba nazionalen zati garrantzitsua dira, narratiba nazionalista eta baztertzailen gorakadaren bidetik Europa bere baitara biltzen ari dela ikusten dugun honetan.

Hezkuntzaren edo kazetaritzaren eremuetan bezala, artea tresna garrantzitsua dela jakinik, arlo horretan ere zalantzan jarri behar ditugu gure kultura-iruditeriak eta luzaroan ziurtzat jo ditugun hainbat gairi buruz ditugun narratibak. Denbora gehiegiz egon gara gauzak horrela direlakoan.

---

15 Informazio gehiagorako ikusi Abdoul Sowan *Saint-Louis, Senegal: from heritage to tourism. Com-promised local development?* artikulua., *Revista de ciencias sociales*, 2017, 5 (1), 84-99. or. Hemen eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5970000>

# SOLASALDIA: “EGOKITZAPENA ETA LAN-AUKERAK”

*Itun honetako partaide diren estatuek lan egiteko eskubidea aitortzen dute, eta horrek barne hartzen du pertsona orok askatasunez aukeratutako edo onartutako lan baten bidez bizimodua ateratzeko aukera izateko duen eskubidea; hala, neurri egokiak hartuko dituzte eskubide hori bermatzeko.*

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna, 6. artikulua.

*Atzeritarren Legea zabor hutsa da*

Herri-esaera

## Mbaye Gilek dinamizatua

Sunugaal GGKEko presidentea.

- **Carmen Gheorghe.** BILTZENeko teknikaria
- **Katia Henríquez.** ELA sindikatuko zerbitzu juridikoko kidea
- **Koldo Usubiaga.** Gizarte-hezitzailea eta lan-bitartekaritzako teknikaria Peñascal kooperatiban

Enpleguari buruzko solasaldia, gizarteratzeko edozein prozesuren ardatza baita. Esparru legal eta politikoa ere hizpide izan da, benetan konplexu bihurtzen baititu atzeritar jatorriko pertsonak gizarteratzeko politikak, zenbait gizarte-eragilek praktikan jarri nahi dituztenak. Gai horiek abiapuntutzat hartuta, mahai-inguruan hizlari aritu dira hauek: *Carmen Gheorghe, Katia Henríquez eta Koldo Usubiaga.*

Politika horien helburu nagusia atzeritar jatorriko pertsonen eskubideak, aukerak eta egonkortasuna bermatzea da, betiere gainerako herritarren baldintza berberetan. Baina **helburu horiek ez datoz bat migrazio-lege-riarekin eta -politikarekin, horietan eskubideak eta askatasunak esku-ratzeko sistema progresiboa ezartzen baita, eta horren arabera administrazio-baldintza jakin batzuk bete behar dira.**

Azken urteetan, pertsona horien egoera hobetzen duten edo horretan saiatzen diren erreforma eta aldaketa ugari sartu dira indarrean, adibidez, prestakuntzarako errotzea (629/2022 Errege Dekretua), estatuan egoera irregularrean dauden pertsonak erregulatzeko bide garrantzitsua. Egia da, halaber, Atzeritarren Legea oztupo den arren eta egin daitezkeen jarduketak asko baldintzatzen baditu ere, Euskadin badaudela esperientzia



batzuk borondatearekin eta lankidetzaren bidez gauzek funtziona dezaketa erakusten dutenak. Horixe dio Carmenek, eta sare-lana beharrezkoa dela azpimarratu du, prestakuntzarako errotzearen kasuan enpresaburuen, lanbide-heziketaren eta administrazioaren artekoa.

Orokorrean, betebeharrei eskubideei baino arreta handiagoa eskaintzen diegula nabarmendu du Koldok, eta gai garrantzitsua da hori. Ildo horretan, Europako gizarteak hartzen ari diren norabideaz ohartarazi zigun Blanca Garcések areto honetan bertan duela bi urte<sup>16</sup>: **eskubideak ematea eta lortzea integrazioarako bidea zen esparru batetik, eskubideak lortzeko integrazioa frogatu behar den esparru batera igarotzen ari gara**. Atzerritar jatorriko pertsonak betebeharrez jositako ibilbide luzea egin behar du integrazio hori frogatzeko. Hala eta guztiz ere, eskubide horiek eskubide finkatuak eta negoziataezinak dira, eta gizarte-erakundeek eta instituzioek etengabe defenditu beharko ditugu.

Ezagutzen al ditugu eskubide horiek? Badakigu nola defenda ditzakegun?, galdetu du *Mbaye Gilek (Sunugaal GGKEko lehendakariak)*. Horretarako badaude baliabide publikoak; esaterako, ERABEREAN sarea (tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko sarea), Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea eta Lan Ikuskaritza eta Tratu-berdintasunerako 15/2022 Lege integrala, uztailearen 12koa. Baina, era berean, Koldok aipatu duenez, sarritan pertsonak ez dira ausartzen sala-

---

16 Euskadiko Immigrazioari eta Integrazioari buruzko XII. Jardunaldietan izan zen, «Harrerarako eta inklusiorako bidean» izenburupean egin ziren haietan. Hemen kontsulta daiteke: <https://www.ikuspegi.eus/es/jornadas/ver/hacia-la-acogida-y-la-inclusion/22/#jor2>



Mbaye Gil, Carmen Gheorghe, Katia Henríquez eta Koldo Usubiaga, «Egokitzapena eta lan-aukerak» izenburuko solasaldian.



keta jartzera. Gure herrialdean sartu eta irregulartasun administratiboko egoeran dagoen pertsonak ibilbide oso zaila egin behar du, eta harentzat beldurgarria da abiapuntura itzuli eta bidea berriro egin behar izatea. Gainera, Katiak gogorarazi digunez, ez dugu ahaztu behar atzerritar jatorriko emakumeek hein handi batean eskuratzen dituzten lanpostuen berezitasuna. Lan-nitxo horietan ugaria izaten da arrazismo-mota bat, «mikroarrazismoak», eta protokoloak eta legeak nekez iristen dira horietara.

Ildo horretan ere badira kontuan hartzen ez diren diskriminazioak edo eskubide-urraketak, eta erlijio-desberdintasunarekin lotuta daude. Hala, Mbayek dioenez, atzerritar jatorriko pertsonen laiotasunean bizitzeko gonbita egiten digute. Baina laiotasun hori zalantzarik da batzuetan, herrialde honetako lan-egutegia ere erlijioarekin lotutako jai eta ospakizun ugariak baitago. Kasu horietan, ona litzateke erlijio-arrazoiengatik diferentziak lan-egiturara egokitzea, enpresa eta sektore batzuetan egiten dutenez.

Azkenik, adierazi beharra dago atzerritar jatorriko biztanleria egituraren aldetik Espainiako eredu ekonomiko eta produktibora lotuta dagoela. Lotura hori egiturazkoa da; izan ere, atzerritar jatorriko pertsonak Espainiako ekonomiaren sektore intentsiboetan egiten duten lan merke eta prekarioa funtsezkoa da egungo merkatu globalizatueta sektore horiek lehiakorak eta errentagarriak izan daitezela<sup>17</sup>. Ildo beretik, zer sektoretan sartu nahi gaituzte?, galdetu du Katiak. Kapitalak non kokatu nahi gaitu? Emakumeen kasua nabarmendu da berriro. Esperientzia profesional sendoarekin iristen dira sarritan, baina garbiketaren, etxeko lanen eta zaintzaren eremuetan bakarrik aurkitzen dute lana. Emakume horiek behin eta berriro salatu duten lurzoru itsaskorra da. **Generoa, jatorria bezala, estratifikazio-faktorea da: emakumeak lan-segmentu ezegonkorretan biltzen dira beti, eta soldata apalagoak dituzte.** Har dezagun hori kontuan.

---

17 Gai horri buruz merezi du FOESSAren *Un arraigo sobre el alambre* azterlana irakurtzea. Gure herrialdea, dagoeneko, bere biztanleriaren aniztasun «etniko» eta sozial sakonetik egiten eta eraikitzen den herrialdea dela erakusten du, besteak beste. Aniztasun horrek, aberastasun bilakatzeko, errekonozimenduko, gizarte-kohesioko eta aniztasuna kudeatzeko politika unibertsalak beharko ditu. Hemen kontsulta daiteke: [https://www.nadiesinfuturo.org/IMG/pdf/INFORME\\_ARRAIGO\\_SOBRE\\_EL\\_ALAMBRE.pdf](https://www.nadiesinfuturo.org/IMG/pdf/INFORME_ARRAIGO_SOBRE_EL_ALAMBRE.pdf)



## ONDORIO GISA

*Inbadituak edo inbaditzaileak, errefuxiatuak, emigranteak, erbesteratuak, diasporaren seme-alabak gara. Genetika bidaiari eta nahasiaren aztarnek agerian uzten dute espezie migratzaile gisa dugun iragana, begien bistakoa dena ukatzen saiatzen bagara ere.*

Irene Vallejo

Egoera konplexua da: hortxe dago komunikabideen efektu desitxuratzaileria; iritzi publikoa ez da irmoa, aldakorra baizik; eskuin-muturrak bertakoak ez diren pertsonen natibizazio- edo kanporatze-proposamenekin egiten du aurrera, eta une batzuetan iragan ilunera garamatza.

Horren aurrean, J. Carlos Vázquezek, espazio emankor honetako antolatzaile eta anfitrioi den KCD GGKEaren izenean, honako hau esan digu: Alda ditzagun joko-arauak, jar ditzagun mahai gainean bestelako joko-arau batzuk, hobeak izango direnak, bestelako jokalaria hobeak azaltzea ahalbidetuko dutenak. Dibertsifika dezagun mundua, eta hunki dezagun. Jar ditzagun gure errebeldiak elkarrizketan eta praktikan.

Hala bedi.



Quindy Akeju eta NBC Gás Butano, ekitaldi-amaierako performance artistikoan.



# HIZLARIAK



## **SANI LADAN**

(Kamerun)

Migrazioetan aditua eta kulturarteko bitartekaria.



## **CHAIMAA BOUKHARSA**

(Amazigh/Afrika)

Afrocolectiva-ko sortzailekidea.



## **CARLA DAVIES**

(Euskadi)

Asociación Mujeres con Voz elkarteko presidentea.



## **HAJAR SAMADI**

(Maroko/Euskadi)

Bidaya elkartearen sortzailea.



## **DANIELA BECERRA**

(Palmira, Kolonbia)

LGTBIQ+ mugimenduko aktibista.



### **TAMARA CLAVERÍA**

(Euskadi)

AMUGE - Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarteko presidenteordea.

---



### **LAURA FEAL**

(Espainia/Senegal)

Freelance kazetaria eta Hahatay Son Risas de Gandiol elkarteko kidea.

---



### **MAIMOUNA JALLOW**

(Gambia/Espainia)

Positively African-eko zuzendaria.

---



### **INAURY PORTUONDO CÁRDENAS**

(Kuba)

Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko (Kubako) Casa de África zentroko espezialista nagusia.

---



### **SILVIA ALBERT SOPALE**

(Espainia)

Periferia Cimarronas-en bazkide sortzailea.



### **FATOU DIOP SALL**

(Senegal)

Soziologia eta antropologia irakaslea Gaston Berger Unibertsitatean, Saint Louisen, Senegalen.



### **ABDOUL SOW**

(Senegal)

Senegaleko Ikasketa eta Dokumentazio Zentroko (CRDS) irakaslea eta zuzendaria.



### **MARRA JUNIOR**

(Senegal)

Devenir elkarte soziokulturalaren sortzailea.



### **SARA GARCÍA**

(Alcorcón/Bilbo)

Matiz elkarteko prestakuntza arloko arduraduna eta Zas!, Zurrumurruen Aurkako Sarearen idazkari teknikoa.



### **LOLA BOLUDA**

(Balentzia/Euskadi)

Ongi Etorri Eskolara proiektuaren sortzailea.





## **MOUFDI KAMEL**

(Maroko/Euskadi)

Biltzen - Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuko teknikaria.

---



## **AMELIA BARQUÍN**

(Euskadi)

Mondragón Unibertsitateko kulturarteko hezkuntzako irakaslea.

---



## **JULIO FLOR**

(Euskadi)

Kazetaria eta Euskal Kazetarien Elkargoko eta Euskal Kazetarien Elkarteko ordezkaria.

---



## **LUCÍA ASUÉ MBOMIO**

(Alcorcón)

Kazetaria eta TVEko berriemailea.

---



## **SARAH BABIKER**

(Madril)

El Saltoko migrazio-arduraduna.



### **JOSÉ BAUTISTA**

(Espainia)

Fundación porCausa fundazioko kazetaritza-  
ikerketen zuzendaria.



### **MBAYE GIL**

(Senegal/Espainia)

Sunugaal GGKEko presidentea.



### **CARMEN GHEORGHE**

(Errumania)

Biltzen - Gizarteratzea eta Kulturarteko  
Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuko teknikaria.



### **KATIA HENRÍQUEZ**

(El Salvador)

ELA sindikatuko zerbitzu juridikoa.



### **KOLDO USUBIAGA**

(Euskal Herria)

Peñascal S. Coop. sozietateko gizarte-  
hezitzailea eta lan-bitartekaritzako teknikaria.








Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

48902 - Barakaldo - Bizkaia

94 602 46 68

info@kcd-ongd.org

**www.kcd-ongd.org**



**CINE**  
**INVISIBLE**  
 FESTIVAL INTERNACIONAL  
 FILM SOZIALAK 2024 BILBAO

